4. Era berean, bere eskumenen barruan, estatutu hauetan ezarritako administrazio-ahalmenak ere izango ditu bere helburuak betetzeko.

#### ***2. artikulua. Atxikipen organikoa, ordezkaritza eta gatazkak***

Osasunaren eta kontsumoaren arloen ardura unean-unean duen udal sailari atxikita egongo da Erakundea, eta sail horren betebeharra izango da erakundea kontrolatzea eta haren jarraipena egitea, indarrean dauden legeetan eta estatutu hauetan ezarritako baldintzetan.

Presidentea izango da Erakundearen lehen ordezkaria. Hura ez dagoenean, erakundeko organoak izango dira ordezkari, estatutu hauek emandako eskumenen arabera.

Alkateak ebatziko ditu Udalaren edo beronen menpeko entitateen eta Erakundearen artean sortutako eskumen arloko gatazkak.

#### ***3. artikulua. Helbidea***

Erakundearen helbide soziala Ernesto Erkoreka plaza z/g izango da. Hala ere, helbidea lekuz aldatu daiteke, baina udalerrriaren barruan betiere, eta Administrazio Kontseiluaren erabakiaren bidez.

#### **4. artikulua. Iraupena**

Erakundea denbora mugagaberako sortu da, eta Udala izango da haren ondorengo, erakundea desegiten bada.

Erakundearen jarduerak, estatutuak argitaratzen diren egunean hasiko dira, aplikatzekoa den tokiko legediak ezarritako baldintzetan. Hala ere, estatutuak argitaratu eta hurrengo hilaren 1ean hasiko dira jarduerak gauzatzen.

#### **5. artikulua. Araubide juridikoa**

Erakundea zuzenbide pribatuak arautzen du. Hala ere, honako hauetan ez da hala izango: Erakundearen organoen borondatea eratzean, eman zaizkion administrazio-ahalmenak erabiltzean eta aplikatzekoak diren tokiko legeetan eta juridiko publikoetan beren beregi araututa dauden alderdietan.

## **II. KAPITULUA**

### **EGITEKOAK ETA AHALMENAK**

#### **6. artikulua. Erakundearen egitekoak**

1. Erakundearen helburua da Udalak merkatuen eta hilerrien arloan dituen eskumenak aurrera eroatea modu zuzen eta deszentralizatuan. Hortaz, erakundeari dagokio zuzeneko zein zeharkako gestioan Bilboko Udalaren eskumenekoak diren hilerriekin eta merkatuekin lotutako jardueren plangintza, eraketa eta gestioa. Era berean, udal merkatuetako elikagaien ikuskapena egingo du.
2. Adierazitako egiteko orokorrez gain, egiteko guzti horiek izango ditu zuzeneko gestiokoetan.  
Alabaina, gaur egun zeharkako gestiokoak diren merkatuetan, sistema hori osorik errespetatuko da dagoen horretan. Hala ere, gerora beste erabaki batzuk hartu ahal izango dira eta zerbitzu publikoen emakidadunarekiko harremanetan berezkitzat jo daitezkeen eta orain arte Udaleko Sail batek egiten zituen eta orain Erakundearen gain utzi diren egitekoak ere izan ditzake.
3. Erakundearen helburu zehatzak:
  - b) Bilboko Udalaren hilerrien eta merkatuen administrazioa, gestioak eta ustiapena.
  - b) Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 24.6 arabera sozietatea Bilboko Udalaren balibide propioa eta zerbitzu teknikoak izango da eta bere helburu sozialaren esparru orokorreko enkarguak bete ditzake.

4. Ez dira Erakundearen helburuaren barruko egitekoa, legez administrazioaren baimena behar duten jarduerak gauzatzea, baimen hori ez badu.

## **7. artikulua. Zerbitzuak eta jarduerak**

1. Aipatutako helburuak betetze aldera, Erakundeak bere gain hartzen du ondoko zerbitzuak eta jarduerak gauzatzea eta gestionatzea:
  - a) Bilboko Udalaren hilerriak antolatzea, gestionatzea eta ustiatzea.
  - b) Hilotzak, gorpuzkiak, gizakien hondakinak edo errautsak lurperatzea, hobitik ateratzea eta erraustea.
  - c) Hilerriak kontserbatzea, mantentze-lanak egitea eta garbitzea.
  - d) Hilerrietako eta errausketa-labeetako administrazio-emakidak gestionatzea eta, behar izanez gero, emakidak kontrolatzea eta berreskuratzea.
  - e) Ondare-instalazioak jagotea, zaintzea eta mantentze-lanak egitea.
  - f) Erakundearen menpe dauden ondasunak eta jarduerak ustiatzea.
  - g) Hilerriak eta errausketa-labeak egokitzeko lanak planifikatzea eta gestionatzea.
  - h) Hilerrien eta errausketa-labeen hobekuntza globala bultzatzea.
  - i) Merkatu-zerbitzua antolatzea eta ematea, Bilboko Udalak ezar ditzakeen oinarrizko arauetako eta, udalak Erakundeari eman liezazkiokeen eskumen arautuetan oinarriturik, Erakundeak berak eman ditzakeen arauetako xedapenak beteta ( unean-unean aplikatzekoak direnean) baita baldintza teknikoak, sanitarioak, administratiboak, merkataritza arlokoak, urbanistikoak edo bestelakoak ere.
  - j) Udal merkatuetako merkataritza-jarduera antolatzea, atxikita dagoen zerbitzu publikoaren helburuarekin eta erabiltzaileen premiekin eta ohiturekin bat etorrira.
  - k) Udal merkatuetako saltokien, merkataritza-guneen, instalazio lagungarrien eta osagarrien eta merkatuok osatzen dituzten edo bertako parte diren elementu guztien banaketa erabakitzea.
  - l) Jabetza publikoko emakida administratiboak, emakida bereziak eta aldi baterako emakidak gestionatzea, Bilboko Udalak ezar ditzakeen oinarrizko arauetako eta, udalak Erakundeari eman liezazkiokeen eskumen arautuetan oinarriturik, Erakundeak berak eman ditzakeen arauetako xedapenak beteta. Jabetza publikoko emakiden tituluak erreskatatzea eta kalte-ordainak ematea, beharrezkoa denean.
  - m) Merkatuaren zerbitzu publikoaren gestiorako administrazio-kontratuak betetzeaz arduratzea zeharkako gestioko merkatuetan, adjudikazio-pleguetan eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorrira. Kontratuok bete ezean, beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak hartzea eta eskumena duen udal organoari bidaltzea kontratua amaitutzat jotzeko proposamena.
  - n) Udal eraikineko elementu komunak garbitzea, mantentze-lanak egitea eta zaintzea.
  - o) Udal instalazioak jagotea eta zaintzea.

- p) Inbertsio-obrak planifikatzea eta zenbatekoak eta merkatuko operadoreengan izango duten eragina zehaztea, Bilboko Udalak ezar ditzakeen oinarritzko arauetako eta, udalak Erakundeari eman liezazkiokeen eskumen arautuetan oinarriturik, Erakundeak berak eman ditzakeen arauetako xedapenak beteta.
  - q) Bilboko Udalaren oinarritzko arauen eta Erakundearen garapen-arauen aurkako arau-hausteak direla-eta zehapen-espedienteak tramitatzea eta zigorrak jartzea.
  - r) Estatutu honen arabera bere gain utzitako administrazio-ahalmenak gauzatzeko beharrezko diren jarduerak egitea.
2. Helburuak hobeto betetzeko eta aurreko idatz-zatietan ezarritakoari lotuta, Erakundeak bere helburuekin lotura duten jarduera ekonomikoak, merkataritzako jarduerak eta bestelakoak egin ahal izango ditu, estatutu hauetan garatutako baldintzen arabera.

### **8. artikulua. Administrazio-ahalmenak**

1. Bere egitekoen barruan, erakundeak hurrengo administrazio-ahalmenak izango ditu:
- a) Baimenak, lizentziak eta emakidak emateko, kudeatzeko, kontrolatzeko eta azkentzea, indarrean dauden udal ordenantzako eta Bilboko Udalak ezar ditzakeen oinarritzko arauetako baldintzetan eta, udalak Erakundeari eman liezazkiokeen eskumen arautuetan oinarriturik, Erakundeak berak eman ditzakeen arauetako xedapenak beteta.
  - b) Zigortzeko ahalmena, ordenantzetan, oinarritzko arautegietan eta aplikatzekoak diren garapen-arautetan aurreikusitako kasuetan.
  - c) Diziplina ahalmena, funtzionarioei dagokienez, zerbitzutik behin betiko kentzea izan ezik.
  - d) Autoantolaketa-ahalmena, estatutu hauen eta Udalaren arauen esparruan.
  - e) Araudiak egiteko ahalmena, kudeatzen dituen zerbitzu publikoei dagokienez, Udalak ezar dezakeen oinarritzko arautegia beteta; eta araudiak egiteko ahalmena, erakundeko antolamenduari, erakundeko giza baliabideei eta haien lan-baldintzei dagokienez, estatutuetan bertan zehaztutakoa izan ezik.
  - f) Esleituta dituen zuzenbide publikoko sarrerak kudeatzeko eta likidatzeko ahalmena.
  - g) Ondasun propioak eta atxikiak aztertzea, mugatzea eta ofizioz berreskuratzea.
  - h) Legezketasuneko eta bete beharreko presuntziozko ahalmena, nahitaezko betearazpenezko ahalmena eta bere administrazio egintzak ofizioz berraztertze ahalmena.
  - i) Haren ondasunen eta eskubideen enbargaezintasuna, eta lehenespenezko eskubidea, lehentasunezko eskubidea eta beste prerrogatiba batzuk, legeetan xedatutakoaren arabera.

j) Estatutu honetako artikulua hauetan aipatutako eskumenak baliatzeko beharrezkoa den ahalmena:

10.2 art., a)tik j)ra

14.1 art., a)tik o)ra

17.1 art., a)tik n)ra

k) Beste edozein administrazio-ahalmen, indarrean den araudiak enpresa-erakunde publikoei berariaz esleitutakoa.

2. Ahalmen horiek guztiak erakundeko organoek erabiliko dituzte, alegia, estatutu hauetan ahalmenak esleituko zaizkien organoak.

### III. KAPITULUA

#### ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDUA

##### **9. artikulua. Gobernu eta zuzendaritza-organoak**

Hauetara dira erakundeko gobernu eta zuzendaritza-organoak:

- a) Presidentea
- b) Presidenteordea
- c) Administrazio Kontseilua
- d) Zuzendari kudeatzailea

##### **10. artikulua. Izaera eta egitekoak**

1. Erakundeko presidentea alkatea izango da. Hala ere, presidente eraginkorraren kargua Erakundearen ardura duen saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetu ahal izango dio.
2. Presidenteari dagokio:
  - a) Edozein motatako pertsonen zein erakundeen aurrean erakundearen ordezkari gorena izatea.
  - b) Zerbitzu guztien goi-mailako ikuskaritzaz arduratzea eta zerbitzuon jardueraren garapena zaintzea.
  - c) Erakundearen helburuak, estatutu hauek ezarriko dituztenak eta haiek garatzeko arauak betetzeaz arduratzea.
  - d) Erakundearen plan estrategikoaren proiektua onartzeko proposamena egitea.
  - e) Administrazio Kontseiluaren bileretara deitzea eta bilerok zuzentzea, une bakoitzean aplikatu beharreko arauak interpretatuz.
  - f) Administrazio Kontseiluak hartu beharreko erabakiak proposatzea eta erabakiok betetzen direla zaintzea.
  - g) Administrazio Kontseiluari antolakuntzazko egitura proposatzea.
  - h) Gastuak, eta kontratuak eta hitzarmenak onartzea, Udalak SAUentzat ezarrita dituen irizpide orokorren barruan.
  - i) Erakundearen interesak eta ondasunak defendatze aldera, zuzendari kudeatzaileak aurkeztutako auzi edo administrazio egintzak eta errekursoak berrestea.

j) Estatutu hauek esleituko dizkion bestelako egitekoak gauzatzea, bai eta indarrean diren xedapenek erakundeari esleitzen dizkienak ere, azken horiek beste organo batzuei esleitu ezin zaizkienean eta kudeaketa arruntari ez dagozkienean.

3. Salbuespen gisa, atzeratu ezin diren premia larriko kasuetan, Administrazio Kontseiluaren eskumenekoak diren eta besteren esku utz daitezkeen erabakiak hartu ahalko ditu. Hartutako erabakiak nahitaez jakinarazi beharko dizkio Administrazio Kontseiluari egingo den lehen bileran, berrets daitezten.

4. Presidenteak esleituta dituen egitekoak gauzatzean aurrera eramango dituen egintzak behin betikoak dira administrazio bidean. Egintza horien aurka aukerako berraztertzeke errekurtsua jarri ahal izango da.

5. Erakundea atxikita dagokion udal organoaren titularrari eskuordetu ahalko dizkio eskumen guztiak presidentek, 2.a) eta 2.e) idatz zatietan adierazitakoak salbu.

### **11. artikulua. Presidenteordea**

Presidenteak izendatuko du presidenteordea, Administrazio Kontseiluko kideen artean. Presidenteordea ordezkatuko du Administrazio Kontseiluan dituen egitekoetan, presidente postua hutsik denean, hura ez dagoenean, gaixo dagoenean edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen denean.

### **12. artikulua. Osaketa**

Administrazio Kontseiluak gehienez hamabi kide izango ditu. Horietako bat Entea atxikiko den saileko titularra izango da eta gainerakoak, Udaleko Osoko Bilkurak erabakiko duenaren arabera, une bakoitzean ezartzen diren irizpideekin bat etorrita

### **13. artikulua.- Kideak izendatzea eta kargutik kentzea**

Administrazio Kontseiluko kideak aplikagarri den antolamendu juridikoaren arabera izendatuko eta, hala dagokionean, kargutik kenduko dira, Udalbatzaren berritzearekin bat etorritik, edo karguren bat hutsik geratu den edo norbait kargutik kendu den bakoitzean.

### **14. artikulua. Egitekoak eta egintzen izaera**

2. Administrazio Kontseiluaren egitekoak honako hauek izango dira:

a) Administrazio Kontseiluaren funtzionamendu arauak ematea, estatutu hauetan eta kide anitzeko organoei buruzko toki erregimeneko araudian aipatzen ez diren gaietan; eta barne erregimeneko arautegia onartzea, halakorik behar bada.

b) Erakundearen plan estrategikoa, jarduera-programa eta aldaketak onartzea.

c) Sozietatearen egoitza aldatzea.

d) Negozioak, merkataritza sozietateak edo enpresak, edo funtsak, erakundeak, fundazioak, elkarteak edo mozkinik ateratzeko asmorik gabeko bestelako pertsona juridikoak sortzea eta haietan parte hartzea onartzeko proposamena egitea; bai eta, hala dagokionean, haien estatutuak onartzea ere, Udalaren osoko Bilkurara bidalita.

e) Organo deskonzentratuak sortzea eta haien egitura onartzea.

f) Erakunde honen gain utzitako eginkizunen barruan, eskumenen eskuordetzea edo kudeaketaren ardura lagatzea berekin izango duten lankidetzak-hitzarmenak sinatzea beste Administrazio Publiko batzuekin eta haien mendeko erakundeekin edo Erakunde Korporatiboaren esparruko beste erakunde batzuekin.

g) Gastuak eta kontratuak eta hitzarmenak onartzea Bilboko Udalak SAU, Autonomiadun Erakunde eta Enpresa Erakunde Publikoentzat ezarrita dituen irizpide orokorrekin bat etorrira.

h) Erakundearen helburuak lortzeko beharrezko kredituak, abalak edo bestelako bermeak formalizazioa proposatzea, Bilboko Udalak SAU, Autonomiadun Erakunde eta Enpresa Erakunde Publikoentzat ezarrita dituen irizpide orokorrekin bat etorrira.

i) Gastuen eta diru sarreren aurreikuspenaren egoerari, langile zerrendari, lanpostuen katalogoari eta hitzarmen kolektiboari dagozkien proposamenak onartzea, eta, hala dagokionean, eskumena duten udal organoetan aurkeztea, behin betiko onar ditzaten.

j) Zuzendari kudeatzaileak proposatuta, kontratu mugagabea duten langileak kontratatzeke oinarriak eta prozedura onartzea.

k) Erakundearen urteko kontuak eta emaitzen aplikazioa onartzea, beharrezkoa bada eskumena duen udal organoari bidalita, hark behin betiko onar ditzan.

l) Erakundearen ondasunen eta eskubideen (erakundearenak zein atxikitakoak) inbentarioa onartzea, eskumena duen udal organoari bidalita, hark behin betiko onar dezan.

ll) Administrazio-ahalmen hauek erabiltzea:

- Autoantolatzeke ahalmena.
- Araudiak egiteke ahalmena, Estatutu honen 8.1.e) eta 14.1.a) artikuluetan ezarritako eran.

m) Zuzendari kudeatzaileak erakundearen egitura eratuko duten unitate organikoetako zuzendaritzarako langileak izendatzen dituenean, izendatze hori berrestea.

n) Zuzendari kudeatzaileak erabakitako langileak kaleratzea berrestea.

ñ) Funtzionario atxikiak zerbitzutik behin betiko kentzeko proposamena – gerentziak aurkeztuta- onartzea, aurretiaz zerbitzutik kentzea erabakitzeko eskumena duen udal organoari bidalita.

o) Estatutu hauek emango dizkieten bestelako egitekoak eta indarrean den araudiak berariaz esleitu diezazkionak gauzatzea.

p) Erakundearen helburu sozialetik datozen eta tasa edo prezio publikoaren izaera duten eskubide ekonomikoak aldatzeko eta ezartzeko proposamena egitea Udalaren Osoko Bilkurari, udal organo eskudunen bitartez, eta izaera hori ez dutenak onartzea.

q) Udal merkatuei balioa emateko edota bultzatzeko baliagarriak izan daitezkeen jarduera osagarriak emateko edota funtzionamendu egokirako ezinbestekotzat jotzen den osagarria emateko eskatzea Gobernu Batzordeari.

2. Administrazio Kontseiluak bere eskumenak gauzatzean emandako egintzak behin betikoak izango dira administrazio bidean. Salbuespen izango dira administrazio ahalmenak gauzatzean emandakoak; izan ere, horiei gorako errekurtsoa aurkeztu ahalko zaie Tokiko Gobernu Batzarrean. Bestalde, administrazio bidean behin betikoak diren egintzen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da Administrazio Kontseiluan.

### **15. artikulua. Administrazio Kontseiluaren funtzionamendua**

1. Presidenteak aurrez deituta –bere ekimenez edo, gutxienez, kontseilarien erdiak hala eskatuta–, Administrazio Kontseilua bildu egingo da erakundeak ondo funtziona dezan behar beste aldiz, eta, gutxienez, hiru aldiz urtean. Sei bilera horiek, hain zuzen, izango dira arruntak.
2. Administrazio Kontseiluaren deialdi, eraketa eta funtzionamendu erregimena bat etorriko da kide anitzeko organoei buruzko toki erregimeneko araudiko arauekin, estatutu honetako xedapenekin eta estatutuetako 14.1.a) artikuluan aipatutako barne funtzionamendurako arauekin. Modu osagarrian, Udaleko kide anitzeko gobernu organoari aplikagarriak zaizkion arauak izango dira indarrean.
3. Zuzendari kudeatzailea Administrazio Kontseiluaren bileretara joango da, eta hitza izango du, baina botorik ez. Halaber, Administrazio Kontseiluaren bileretara joan ahalko da presidenteak deituko duen oro, eta hitza izango du, baina botorik ez. Pertsona horiek gai zerrendan sartutako gaitan aditu gisa hartuko dute parte bileretan, Kontseiluari beharrezko laguntza emateko xedearekin.

### **16. artikulua. Zuzendari kudeatzailea izendatzea eta kargutik kentzea**

1. Zuzendari kudeatzailea da zuzendaritza arrunteko organo gorena, eta Administrazio Kontseiluak izendatuko du, eta kargutik kenduko.
2. Zuzendari kudeatzailea zuzendaritza organotzat hartuko da, eta Administrazio Publikoko kargua izango da. Hortaz, Administrazio Publikoetako karrerako funtzionario edo lan kontratuko funtzionario izango balitz, lan utzialdian izango da zerbitzu berezietan egoteagatik. Edozelan ere, izendatzeko beharrezkoa izango da aplikatzekoa den toki-erregimeneko arautegia eta Enplegatu Publikoaren estatutua betetzea.

3. Zuzendari kudeatzailearen kargua hutsik geratzen bada, bera ez badago, gaixo badago, edo ezintasun bidezkoen bat sortzen bazaio, presidenteak aukeratzen duen erakundeko zuzendaritzako kideak (aurreko idatz zatian ezarritako betekizunak beteko beharko ditu) ordezkatu du.

### **17. artikulua. Egitekoak eta egintzen izaera**

1. Zuzendari kudeatzailearen egitekoak honako hauek izango dira:

a) Erakundearen ordezkartzako, administrazioko eta kudeaketa arrunteko ahalmenak erabiltzea, estatutu hauetan xedatutakoarekin bat. Presidente eta presidenteordea ez daudenean erabiliko du ordezkartzako ahalmena.

b) Administrazio Kontseiluari eta presidenteari bere jardueraren eta sozietatearen kudeaketari dagozkion gaien berri arduraz ematea.

c) Administrazio Kontseiluaren hitzarmenak unean-unean gauzatzea; presidenteak hitzarmen horiek gainbegiratu ahalko ditu.

d) Antolakuntzako egitura zein langileen egitura garatzea, Administrazio Kontseiluak ezarritako irizpide orokorrekin bat.

e) Erakundearen egitura osatuko duten unitate organikoetako zuzendaritzarako langileak izendatzea. Administrazio Kontseiluak berretsi beharko du izendatzea.

f) Zerbitzu, obra eta sail guztien buruzagitza gorena, bere gain hartuz zuzendaritza, sustapena eta ikuskaritza.

g) Langileak kontratatzea eta haien ordainsaria zehaztea, erakundearen aplikagarri diren akordioei eta lan hitzarmenari jarraituz.

h) Langileen lan zigorak erabakitzea; baita, egoki bada, haiek kaleratzea erabakitzea ere. Kaleratzeko erabakia hartuz gero, Administrazio Kontseiluak berrestea beharko da.

i) Ondare erantzukizunari dagozkion erreklamazioak eta auzibide zibilaren eta lan auzibidearen aurretiko erreklamazioak ebaztea.

j) Erakundearen eginkizunen barruan, eskumenen eskuordetzea edo kudeaketaren ardura lagatzea berekin izango ez duten lankidetzak-hitzarmenak sinatzea beste Administrazio Publiko batzuekin eta haien mendeko erakundeekin edo tokiko erakundearen esparruko beste erakunde batzuekin.

k) Gastuak eta kontratuak eta hitzarmenak onartzea Bilboko Udalak SAU, Autonomiadun Erakunde eta Enpresa Erakunde Publikoentzat ezarritak dituen irizpide orokorrekin bat etorrira.

l) Erakundearen eskubideak edo interesak babestearren, auzi edo administrazio egintza eta errekursoak –arruntak zein bereziak– aurkeztea. Ondoren, presidenteak berretsi beharrekoak izango dira.

ll) Estatutu hauek esleituko dizkion bestelako egitekoak gauzatzea, bai eta indarrean diren xedapenek erakundeari esleitzen dizkienak ere, azken horiek beste organo batzuei esleitu ezin zaizkienean eta kudeaketa arruntari dagozkienean.

m) Administrazio-ahalmen hauek baliatzea:

- Erakundearen gain utzitako zuzenbide publikoko diru-sarrerak gestionatzeko eta likidatzeko ahalmena, baita zerga-salbuespenak aplikatzeko, legeetan ezarritako eran.
  - Diziplina ahalmena langile funtzionario atxikien gainean, zerbitzutik behin betiko kentzea salbu. Horretarako, Administrazio Kontseiluari proposamena egin beharko dio, eskumena duen udal organoari behin betiko bidaltzeko.
  - Zigortzeko ahalmena.
  - Ondasunak aztertzeko, mugatzeko eta berreskuratzeko ahalmena.
  - Erakundearen jarduera-esparruan kasuan kasuko baimenak, lizentziak eta administrazio-emakidak emateko ahalmena.
- n) Estatutu hauek esleituko dizkion beste funtzioak eta Administrazio Kontseiluak edo presidentek eskuordetuko dizkion egitekoak gauzatzea.
2. Zuzendari kudeatzaileak bere eskumenak gauzatzean emandako egintzek behin betikoak izango dira administrazio bidean. Salbuespen izango dira administrazio ahalmenak gauzatzean emandakoak; izan ere, haiei gorako errekurtsioa aurkeztu ahalko zaie erakundea atxikita egongo zaion organoaren titularraren aurrean. Bestalde, administrazio bidean behin betikoak diren egintzen aurka berraztertze errekurtsioa jarri ahalko da zuzendari kudeatzailearen aurrean. Ekonomiaren arloko ekintzak aurka egiteko berariazko erregimenaren arabera aurkaratuko dira.

**18. artikulua. Fede publikoa eta lege arloko aholkularitza**

Administrazio Kontseiluan horretarako izendatuko den eta funtzionario publikoa izan behar duen idazkariak izango du fede publikoa emateko egitekoaren ardura zein erakundea osatzen duten pertsona bakarreko eta kide anitzeko organoei lege arloko aholkularitza emateko egitekoaren ardura, betiere tokiko oinarrizko legedian ezarritako eran.

**IV. KAPITULUA**

**JARDUERAREN ERREGIMENA**

**19. artikulua. Tresnak eta baliabideak**

Erakundeak, bere zerbitzuak eta jarduerak aurrera eramateko eta kudeatzeko, jarraian aipatzen diren tresna eta baliabide guztiak erabili ahal izango ditu.

**20. artikulua. Jarduera ekonomikoak**

Erakundeak, bere jarduera eremuan, ekonomia, merkataritza edo bestelako jarduerak aurrera eraman ahalko ditu. Jarduera horiek ekimen pribatuarekin lehia egingo duten ekonomia jardueraren adar batekoak direnean, aurrez ekimen publiko ekonomikoaren espedientea ireki eta onartu beharko da.

Erakundearen ardura izango da espedienteari hasiera ematea eta hura bultzatzea, eta erakundeko Administrazio Kontseiluak onartu beharko du zuzendari kudeatzaileak egingo duen oroitidazkia. Proposamena jendaurrean jarri eta alegazioei buruzko erabakiak hartu ondoren, Osoko Bilkuran aurkeztuko da, behin betiko onar dadin.

### **21. artikulua.- Lankidetzaz**

Erakundeak, bere gain dituen egitekoak hobeto gauzatze aldera, edozein eratako akordio edo hitzarmenak egin ahalko ditu entitate edo erakunde publiko zein pribaturekin, Espainiakoekin zein nazioartekoekin.

Akordioen eta hitzarmenen esparruan erakundeari Udalarenak ez diren eskumenak eskuordetzen edo kudeatzeko ardura ematen diotenean, Osoko Bilkuraren aurretiko baimena beharko du.

Bereziki, erakunde ofizialekin edo pribatuekin sinatu ahalko ditu hitzarmenak, bere jarduerarekin lotura duten funtsak, laguntzak eta finantza tresnak bideratu, kudeatu eta administratzeko.

### **22. artikulua. Emakidak**

Ekipamendu edo jarduera zehatzak hobeto kudeatzeko, erakundeak emakidak erabili ahalko ditu, obra publikokoren modalitatean.

### **23. artikulua. Organo deskonzentratuak**

Ekipamendu edo jarduera zehatzak hobeto kudeatzeko, erakundeak organo deskonzentratuak sortu eta taxutu ahalko ditu, indarrean den tokiko legedian xedatutakoaren arabera.

## **V. KAPITULUA**

### **ONDARE ERREGIMENA**

### **24. artikulua. Erakundearen ondarea**

1. Herri Administrazioen Ondarearen Legean xedatutakoa izango da ondare erregimena.
2. Honako hauek dira ondarea osatuko dutenak: Erakundearen ondasun eta eskubide propioak; udalaren titulartasunekoak diren hilerrien eta merkatuaren zerbitzu publikoei atxikitako higiezinak eta gainerako elementuak, haiek erakundeari esleitzea edo lagatzea erakundearen alde erabaki edo etorkizunean erabakitzen denean; eta edozein pertsonak edo erakundek esleitzen dizkion beste batzuek.
3. Erakundeak libreki erabili ahalko ditu bere titulartasunekoak diren jabetza pribatuko zein ondarezko ondasunak eta eskubideak.

### **25. artikulua. Erakundearen baliabide ekonomikoak**

Honako hauek dira baliabide ekonomikoak osatuko dituztenak:

- c) Erakundearen ondarea osatzen duten ondasunak eta balioak eta berauen errendimenduak.
- d) Erakundearen ohiko kudeaketatik datozenak eta, bereziki, ordenantza fiskalak aplikatuzetik datozenak.
- c) Udaleko diru sarreren eta gastuen aurreikuspenen egoeran egindako esleipen espezifikoak.
- d) Administrazio edo erakunde publikoetatik datozen transferentzia arruntak edo kapital transferentziak.
- e) Bere egitekoekin lotura duten edozein motatako zerbitzuak gauzatzeagatik jaso ditzakeen diru sarrerak.
- f) Erakunde publikoek, pribatuek eta partikularrek –eta, bereziki, erakundearekin zuzeneko lotura dutenek– emandako dohaintzak, ondareak eta bestelako ekarpenak.
- g) Eman diezazkioten bestelako baliabideak.
- h) Zigorretatik etorritako sarrerek, erakundearen titulartasunekoak diren zigortzeko ahalmenak gauzatzen diren kasueta

Goikoa gorabehera, Tokiko Enpresa-erakunde Publikoak lortutako etekinak, atxikita dauzkan hilerrietako instalazioetako jabari publikoko emakidetatik datozenak, zerbitzu publikoari lotutako ondasunen titulartasuna duen udal erakundearenak dira, oso-osorik, eta horrek esan nahi du kontzeptu horrengatik bildutako kopuruak Udal Diruzaintzak zehazten duen bankuko kontura transferitu behar direla.

### **26. artikulua. Inbentarioa**

1. Erakundeak inbentario bat egin eta eguneratuta izango du. Inbentarioan jasoko ditu haren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubide guztiak, bai eta bere helburuak betetzeko atxikita izan dituen ondasunak ere. Inbentarioa udalari bidali beharko dio, urtero.
2. Inbentarioa, hala badagokio, urte bakoitzeko abenduaren 31n berretsiko da, eta Administrazio Kontseiluari aurkeztuko zaio, onar dezan.

## **VI. KAPITULUA**

### **LANGILEEN ERREGIMENA**

### **27. artikulua. Langileak.**

1. Honako hauek dira erakundeko langile zerrenda osatuko dutenak:

a) Bilboko Udaleko langile funtzionarioak, alegia, legeak ezarritako mugikortasun mekanismoak aplikatuz udalak erakundeari atxikiko dizkion Udaleko edo udal erakundeetako langile funtzionarioak; azken horiek zerbitzu aktiboaren egoera mantenduko dute, dagozkion legezko ondorioekin.

b) Bilboko Udaleko edo beste udal erakunde batzuetako lan kontratuko langileak, alegia, hitzarmen kolektiboan eta lan araudian ezarritako mugikortasun mekanismoen bidez erakundeari atxikitako langileak.

c) Erakundeak berak kontratatutako lan-kontratuko langileak.

d) Udal hilerriak gestionatzen dituen elkartetik (Bilboko Hileta Zerbitzuak SL) datozen langileak.

## VII. KAPITULUA

### EKONOMIA ETA FINANTZA ERREGIMENA

#### **28. artikulua. Kontratazio-erregimena**

Erakundeak bere kontratazio-jarduerak sektore publikoko kontratuen arloko legedira eta Udalak SAU, Autonomiadun Toki Erakunde eta Enpresa Erakunde Publikoentzat ezartzen dituen irizpide orokorretara egokituko da.

#### **29. artikulua. Finantza-eragiketak**

Udalak aurrez baimena eman eta gero, erakundeak era guztietako finantza eragiketak egin ahalko ditu; eta, bereziki, kreditu eta mailegu eragiketa aktiboak edo pasiboak egin ahalko ditu, Toki Ogasunak arautzen dituen araudian xedatutakoarekin bat, eta urteko diru sarreren eta gastuen aurreikuspen egoeretan ezarritako mugen arabera. Horretarako beren beregi esku hartuko du Udaleko Kontuhartzaile Nagusiak.

#### **30. artikulua. Kontabilitate-erregimena eta erregimen ekonomikoa**

Erakundeak Toki Ogasunak arautzen dituen araudian ezarritako erregimen hauei egokituko zaie: Aurrekontu erregimenari, ekonomia eta finantza erregimenari, kontabilitateko erregimenari, kontu hartzeko erregimenari, finantza kontroleko erregimenari eta eraginkortasunaren kontroleko erregimenari.

Tokiko enpresa erakunde publikoetako araudi espezifikoa jasotzeko, Toki Ogasunak arautzen dituen arautegia aldatzen ez den bitartean, tokiko merkataritza sozietateetarako –kapital osoa tokiko erakundeena den kasuetan– ezarritakoa izango da aplikagarri.

Ekitaldi ekonomikoak urtebeteko iraupena izango du eta urtero urtarrilaren lehen egunean hasiko da.

#### **31. artikulua. Kontrol-erregimena**

Udaleko Kontuhartzailletza Nagusia arduratuko da ekonomia eta finantza kudeaketaren kontrol erregimenaz, Toki Ogasunak arautzen dituen araudian xedatutakoaren arabera.

### **32. artikulua. Diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspen-egoera egitea**

Udalak emango duen hurrengo ekitaldirako ekarpenaren aurrerapenetik abiatuta, erakundeak urtero egingo ditu bere diru sarreraren eta gastuen aurreikuspen egoerak, Toki Ogasunak arautzen dituen arautegian zehaztutako egituraren arabera. Era berean, diru sarreraren eta gastuen aurreikuspen egoeran sartuko dira, orobat, erakundearen titulartasunekoak diren merkataritza sozietateen diru sarreraren eta gastuen aurreikuspen egoerak.

Administrazio Kontseiluak diru sarreraren eta gastuen aurreikuspen egoerak onartzen dituenean, Udalean aurkeztuko dira, diru sarreraren eta gastuen aurreikuspen egoera orokorrean sar dadin. Helburu logikotzat joko da Erakundearen autofinanziazioa, funtsen transferentziarik egin gabe Erakunde Korporatibotik.

Puntu honetan, Erakundeak Udaleko Aurrekontuen Zuzendaritzak ezarrita dituen irizpide orokorren arabera jardungo du.

### **33. artikulua. Urteko kontuak**

Urteko kontuak Administrazio Kontseiluari aurkeztuko zaizkio, hark onartu eta Udalean aurkez ditzan. Erakundeko presidentek egin eta zuzenetsiko ditu urteko kontuak, aurrekontuen araudian xedatutako baldintzen arabera.

## **VIII. KAPITULUA**

### **UDALAREN TUTORETZA AHALMENAK**

### **34. artikulua. Tutoretza-ahalmena**

Udalari dagokio erakundearen gaineko tutoretza-ahalmena. Honela gauzatuko du ahalmen hori:

1. Udalaren tutoretzak berekin dakar Osoko Bilkurak jarduera hauek onartu behar:
  - a) Erakundearen diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspen-egoera eta langileen zerrenda, Udalaren aurrekontuarekin batera.
  - b) Urteko kontuak.
  - c) Erakundearen diru-sarrera izango diren tasen zenbatekoa.
  - d) Beste erakunde batzuetan parte hartzea eta erakundeak sortzea.
  - e) Jarduera ekonomikoan ekimen publikoak egitea.
  - f) Udala ez den beste administrazio publiko batzuek erakundeari eskumenak eskuordetzea edo kudeaketa ardurak ematea.
  - g) Estatutu hauek aldatzea.
  - s) Ondasunen eta eskubideen inbentarioa.
  - t) Zerbitzu publikoa berreskuratzea eta kudeaketa-era aldatzea.
2. Udalaren tutoretzak berekin dakar Erakundea atxikita dagoen organoaren titularrak honako jarduera hauek onartu beharra:

- a. Zuzendari kudeatzaileak administrazio-ahalmenak erabiltzean eman dituen egintzei jarritako gorako errekurtsoen ebazpena.
- 3. Udalaren tutoretzak berekin dakar Tokiko Gobernu Batzordeak jarduera hauek onartu beharra:
  - a) Udalak erakundeari atxikitako langile funtzionarioak zerbitzutik kentzea berekin dakartzaten diziplina zigorrak.
  - b) Laneko hitzarmen kolektiboak.
  - c) Erakundearen helburuak lortzeko beharrezko jesapenen, kredituen, abalen edo bestelako bermeen kontratazioa, edo beste edozein finantza tresnaren kontratazioa onartzea, diruzaintzako eragiketak izan ezik.
  - d) Erakundeko organoek langileen soldaten baldintzak zehazteko eta aldatzeko oinarri izango diren arauak ezartzea, eta erakundeak giza baliabideen arloan aplikatu beharreko jarraibideak zehaztea.
  - e) Aurrekontuen eta kontratazioen arloko arau orokorrak ezartzea.
  - f) Administrazio Kontseiluak administrazio-ahalmenak erabiltzean eman dituen egintzei jarritako gorako errekurtsoen ebazpena.
  - g) Merkatuen jarduera osagarriei buruz Estatutu honen 14.1.q artikuluan aipatutakoak.

## **IX. KAPITULUA**

### **ESTATUTUAK ALDATZEA ETA ERAKUNDEA DESEGITEA**

#### **35. artikulua. Estatutuak aldatzea**

Estatutu hauek onartzeko ezarritako prozedura eta izapide berak erabiliko dira estatutuok aldatzeko ere.

#### **36. artikulua. Erakundea desegitea**

1. Erakundea kasu hauetan desegin ahalko da:
  - a) Zerbitzua kudeatzeko era aldatu dela eta, Udalak egoki irizten dionean.
  - b) Zerbitzua kendu dela eta, Udalak egoki irizten dionean.
2. Udalaren Osoko Bilkurak erabakiko du erakundea desegitea, erakundeko Administrazio Kontseiluak aurrez txostena egin eta gero.

#### **Xedapen iragankor bakarra**

- 1.-Estatutuen aldaketa hau BAO n argitaratu eta indarrean sartu arteko araubide juridikoa orain indarrean dagoena izango da, udal hilerrien eskumena gaur egun bere gain hartua duen udal elkarteak (Bilboko Hileta Zerbitzuak, SL) garatzeari dagokionez.
- 2.- Erakundearen jardun osoa hastean, bere gain hartuko du hasieratik bere araudi moduan Hilerrien Araudia. Hala ere, egokitzapenak erabaki ditzake Kontseiluak, Estatutu honen bidez eman zaizkion arau arloko ahalmenez baliatuta.